

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ZIGOITIKO UDALA

#### **723/2020 zenbakidun administrazioarekiko auzi errekurtsuan bertaratzea**

Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 49.1 artikuluan xedatutakoa betez, argitara ematen da 723/2020 zenbakiarekin adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri dela eta espediente Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2 zenbakiko Epaitegira bidali dela. Errekurtsu hori Sandrine Florence Guylane Cwernerrek eskatu du, honako Alkatetzaren Ebazpenen aurka: 29 zenbakiduna, 2020ko urtarriaren 21ekoa, hirigintzaren legezketasuna berrezartzeari buruzkoa, Larrinoako 3. Poligonoko 6. Lurzaioa legezketzeko neurriak exekutatzeari dagokiona; eta 346 zenbakiduna, 2020ko abuztuaren 27koa, berraztertze-errekurtsua atzera botatzeari buruzkoa.

Gogoan izan iragarki honek auzi honen inguruan agerraldia gauzatu eta esku hartu nahi duten interesdun guztiei dei egiteko balio duela eta horretarako bederatzi eguneko epea ezartzen dela. Epe hori iragarki hau argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko da zenbatzen.

Ondategin, 2021eko otsailaren 23an

*Alkatea*

*JAVIER GORBEÑA GARCÍA*